

MINAREN ISLADAPENA BEGIETAN

1. BEGIRADA ITZALIA

Izarrik ez zen zeruan ageri mundura iritsi nintzen gau hartan. Hori esan zidaten eta hori sinetsarazi nahi diot nire buruari. Sarritan saiatu naiz gogoratzen ez dudan gau hura burutik kentzen. Baina, ezin dut saihestu gau luze hark iraun zuen denbora guztian zerua goibel eta lainoz beterik egongo zela pentsatzea.

Amaren begiradak ere, antzeko itxura izango zuen ziurrenik. Aita kanpoan zen bitartean erditu behar izan zuen. Badakit egin litezkeen ahalegin guztiak egin zituela ni barruan eutsi eta bera iritsi arte kanpora irteten ez uzteko. Ziur nago. Zoritxarrez, ez zen amak nahi bezala jazo. Zoritxarrez diot, aita bertan izan balitz ez liokeelako ihes egiten utziko.

Hala ere, amak asko maite zuen beste norbait zuen alboan. Bere ahizpa zaharrenak, Marianek, asko zekien haurrei buruz, haurdunaldiei buruz eta baita erditzeei buruz ere. Baina, batez ere, haurrei buruz. Oraindik, neskatila izatera ere iristen ez ziren umetxo asko ezagutu baitzituen. Nahiago zuen ezagutu izan ez balitu. Ikusi eta kitto. Inork ezingo lituzke begirada sarkor haiek ahantzi, ordea.

Bazekien, ni jaio aurretik, emakumea izango nintzela. Nola? Ez dakit. Hori dio berak, bederen. Ba omen zekien amarentzat erditze gogorra izango zela ere. Emakume ororentzat da gogorra. Baina, baita pozgarria ere, nire amaren begiek alaitasunik ez isladatu arren. Itzal erraldoi batek estaliak ziruditen. Min jasangaitz baten isladapen iluna.

Beste edozein emakumeri gerta zekiokkeen gauza bera. Asko izan dira minaren zaporea erditzeko unean dastatu dutenak. Gehienek, une hori iritsi baino lehen ere, ezagutzen zuten. Txikitan ezagutu genuen. Guztion begiek ziruditen itzal erraldoi batek estaliak. Min jasangaitz baten isladapen iluna.

Amak bazekien hil egingo zela. Bazekien ez ninduela inoiz ikusiko. Ez zekien ni mundura ekartzea lortuko ote zuen ala ez, ordea. Horregatik, aita bere ondoan egotea nahi zuen. Bere baitarako, aitaren izena errepikatzen zuen behin eta berriz, nahiz eta ozen esatera ez ausartu.

Beldurra zuen. Eta mina. Mina eta beldurra norgehiagokan, biak gorputzaren jabe bilakatzen zirelarik. Batetik, ni galtzeko beldurra. Entzuna zuen ume asko hiltzen ari zirela auzoan azken boladan edota hilda jaiotzen ziren beste asko. Bestetik, berebiziko mina zuen. Ezingo zuela jasan guztiz sinetsita izan arren, ezkongaeuan senarrak esandakoaz oroitu zen: “Fedeak lagunduko dizu”.

Fedeak ez zion lagundu, baina. Minak ito egiten zuen, garrasirik ere egin ezin zezakeelarik. Txikitan bezala. Klitoria erautzi ziotenean bezala. Ezkongaeuan, dagoeneko itxita zegoen zuloa ireki ziotenean bezala. Baina, orduan, fedeak lagundu zion. Oraingoan ez.

Odola indar ikaragarriarekin ateratzen hasi zen. Ez zen gelditzen. Ezin zen gelditu. Ahizpa okerrena gertatuko zenaren beldur zen. Fedeak lagunduko dizu. Beldurra. Mina. Mina eta beldurra. Itzaltzen zihoan begirada. Begirada itzalia.

2. DIR-DIRA BEREKO BEGIAK

Inork ez du gertaturikoaz hitz egin nahi. Baina, denok dakigu zer gertatu zen. Ez dugu amaren inguruan hitzik atera eta ez dugu aterako. Denok adierazi nahi dugu faltan botatzen dugula, baita nik ere.

Ez dakit nolakoa zen. Oso polita seguruenik. Eta bizkorra. Bai, oso bizkorra izango zen. Izebaren egunerokoan jartzen zuenez, bere indar guztiak erabili zituen mundu hau ezagutzeko aukera izan nezan eta baita lortu ere. Baina bera, bidean geratu zen.

Fatimak beti esaten zidan begiak irekitzeko, amaren begien dir-dirak niretan jarraitzen zuela eta. Fatima amaren laguna zen eta oso gogoko nuen bere ahotik hori entzutea. Korrika ispilura joan eta begiak handi-handi jartzen nituen amaren begiek dir-dira gehiago izan zezaten. Fatimak barre egiten zuen eta niri irribarre erraldoi bat marrazten zitzaidan ahoan. Erraldoia baino are erraldoiagoa.

Ondoren, begirada altxa eta gorantz ipintzen nuen nire begien dir-dira amatxok ikusiko zuen esperantzan. Horrela, zerua oskarbi eta lainorik gabe garbi-garbi azaltzen zenean, amak dir-dira itzultzen zidala esaten nion Fatimari. Berak, nirearen antzeko irribarre batekin erantzuten zidan.

Maiz jartzen nintzen gauean izarrei lehiotik begira. Liluratu egiten ninduten. Batzuetan, aita azaltzen zen eta errieta egiten zidan:

- Debo, umeez ezin dute ordu hauetan itzarrik egon. Zoaz ohera!
- Baina, aitatxo, amatxorekin hizketan ari nintzen. Begira zein dir-dira polita duten bere begiek! Hor dago. Ikusten al duzu?
- Debo, lo egin behar duzu eta amatxok ere bai. Zoaz ohera, izar guztiak ihetxetuko dituzu hain luzaroan begira bazaude eta! -esaten zidan aitak bere sentimenduak ez azaleratzeko izugarritzko ahaleginak eginez.

Poz-pozik joaten nintzen ohera, irribarre erraldoi-erraldoia ahoan nuela. Amaren besoetan banengo bezala hartzen nuen lo maindirepean ezkutaturik.

3. DIR-DIRA GALDUTAKO BEGIAK

Zoritxarrez, ordura arteko lañotasun edo xalotasuna bat-batean desagerrarazi zidaten. Berrito inoiz eskuratuko ez nuen xalotasuna. Beste hainbat neskatotxok nire antzera galdutako xalotasun berbera.

Aita etxean ez zegoen batean gertatu zen. Euria gogotik ari zuen kanpoan eta ederki oroitzen dut zerua laino beltz handiek nola nola estaltzen zuten. Gelara joan nintzen korrika trumoiaren hotsaz ikaratuta.

Handik gutxira, izeba Marian sartu zen etxean eta ziztu batean nintzen bere eskua heltzen, bakarrik utzi ez nintzadan. Berak, besoetan hartu ninduen eta nire indar guztiaz besarkatu nuen.

- Lasai egon zaitez, polita.-esan zidan masaila laztanduz.-Trumoi besterik ez da. Orain, Aicharenera joan behar dugu. Zuk errezatzen ikasi nahi baituzu, ez da ala?

- Bai!-erantzun nion “handien” gauza hori nola egiten zen jakiteko irrikitan.

Aicharen etxea gure auzo berean zegoen. Berehala iritsi ginen. Hala ere, blai eginda geunden atea ireki zuenerako. Gela batetara eraman gintuen biok. Bertan, mahai bat eta bi balde zeuden: bat hutsa zegoen eta bestean, ahuntz gorotzak zeuden. Mahaiaren gainean aldiz, guraizeak, bizar-xafla bat, labana eta latorri zati bat zeuden. Denak, grisak izan arren, marroixka kolorea zuten ertzetan, herdoildurik ziruditelarik.

Izebari ea horiekin errezatzen zen galdetu nion. Ezetz erantzun zidan. Baina, horiek errezatzen hasterako beharrezkoak zirela. Lasai egoteko esan zidan, gauza bat egin behar zidatela. Baina, minik ez. Gezurra. Bazekien gezurretan ari zela. Bazekien, bera ere egoera berdinetik pasarazi zutelako. Nahiago zuen berak pairaturikoa pairatu beharrik izango ez banu. Baina, beharrezkoa zen. Gainera, dagoeneko egina izan behar nuen. Beraz, gero eta lehenago, gero eta hobeto.

Etzan egin ninduten eta hankak ireki zizkidaten. “Fedeak lagunduko dizu” esan zidan izebak kopetan eskuak jarri eta burua lurraren kontra jarria izan nezan. Beste emakume batek hankak irekita mantentzen zizkidan, bitartean. Beso indartsuak zituen eta ezin nituen hankak itxi inola ere.

Hankak ixteko ahaleginetan ari nintzen bitartean, Aichak mahai gainean zegoen tresnetako bat hartu zuen. Klitoria erauzi zidan. Mina. Laguntza eskatu nahi zuen garrasia. Beldurra. Mina. Mina, batez ere. Hankak odolez zikinduta. Mina. Izugarritzoko mina. Min jasanezina. Bigarren garrasia. Negar egiteko beharra eta ezina. Indarrik ez negar egiteko, hankak mugitzeko besterik ez eta ezin. Fedeak lagunduko dizu. Ezin mina jasan. Ezin negar egin. Ezin.

Halako batean, odolez bustitako trapu pila bat baldean utzi ondoren, Aichak beste baldean zegoena hartu eta hanken artean zabaldu zidan. “Horrekin zauria berehala itxiko zaizu”, esan zuen. Baina, ez nuen entzun. Azkenean, beste emakumeak hankak ixten utzi zidan eta oraingoan, ohial luze batez lotu zizkidaten.

Oraindik ezin nuen arnasa hartu. Oraindik ezin nuen negar egin. Fedeak lagunduko dizu. Segundo gutxi barru, negarrez hasi nintzen eta garrasika. Negar-zotin haiek izen ziren inoiz izandako sakonenak. Malkoak kanpoko euri tantak baino maizago isurtzen ziren nire begietatik. Ez nuen ikusten. Mina besterik ez. Mina dastatu, ikusi, entzun, ikutu, usaindu eta sentitu egiten nuen.

Hurrengo egunetan, gelan egon nintzen, ohean minaren minez etengabe negarrez.. Ezin nuen pixa egin. Ezin nituen hankak ireki. Ezin nuen mina jasan eta ezin nuen irribarre egin. Fatima bisitan etortzen zitzaidanean ere ez. Ez zidan nire begien dir-dirak amarenen berdinak zirela esaten. Ez zuten dir-dir egiten dagoeneko.

4. OIHU EGIN NAHI ZUEN BEGIRADA

Ez naiz inoiz lehengoa izan. Ez dut lehengo irribarre erraldoi-erraldoi hura berreskuratu. Lehengo xalotasuna, alaitasuna eta izaera, bere osotasunean, iraganaren zati dira. Urrun utzi nahi dudana iragana. Baina, faltan botatzen dudana.

Hamabost urte nituenean, Diaganarekin maitemindu nintzen. Ni baino bi urte zaharragoa zen. Bere ile beltzak eta begi ilunek, izarrez beteriko gauak ekartzen zizkidaten gogora. Berak ere, oso gustoko zituen nire begiak. Eztiaren kolorekoak zirela esaten zidan eta ezta baino gozoago, eskutik heltzen ninduen.

Bi urte igaro eta gero, ezkontzea erabaki genuen. Bai bere aita era baita nirea ere, oso pozik zeuden gure artekoarekin eta gure ametsa betetzeko baimena eman ziguten. Bere ama, ordea, ez zegoen nirekin hain gustora. Ikasketak uzteko eskatzen zidan, emakumeak etxean laguntzeko sortuak izan ginela eta ikasketak gizonentzat eginak zirela esanez. Ez nion ezer erantzuten, bai baitzekien ez niola jaramonik egingo.

Azkenean, amore eman eta baiezkoa esan zigun beraien etxera bizitzera joateko baldintza jarrita. Beraz, ahal bezain laster ezkondu ginen. Oso egun polita izan zen niretzat, ama ondoan izateko beharra sentitu arren.

Ez kongauerako prestatzeko, norbera bere etxera joan ginen. Etxean bakarrik nengoela, lau emakume sartu ziren nire gelan. Hiruen artean, gogor eutsi ninduten eta hankak ireki zizkidaten. Ordurako, nire bagina ia itxita zegoen. Laugarrenak, ireki egin zidan bizar-xafla batekin. Diaganari deitu nion garrasika. Alferrik. Ez zidan entzuten eta ez zekien ezer. Mina nuen. Ezin nuen mina jasan. Botaka egin nuen eta gero, konortea galdu.

Amaitu zutenean, bertan utzi ninduten odoletan, nire senarrarekin koittoa egin nezan. Gau osoan, ezin izan nion negar egiteari utzi. Fedeak lagunduko dizu. Baina, zauriak erre egiten zuen. Oihu egin nahi nuen ozen. Nire begiradan isladatzen zen laguntza erregutzen zuen oihu hura.

5. BEGIRADA GARBIA

Hilabete gutxi barru, haurdun geratu zen Debo. Izugarritzko ilusioa egin zion semetxo bat izango zutela pentsatzeak. Baina, ilusioari beldurra gehitu zitzaion. Umea galtzeko beldurra. Bere bizitza galtzeko beldurra. Amonari gertatu zitzaiona berarekin errepikatuko zenaren beldurra.

Zoritxarrez, lehenengo kezka egi bilakatu zen. Zesareak ezin izan zuen umearen bizitza salbatu lau egun luze eta gogor iraun zuen erditze hartan. Hala ere, amak sekulakoak sufritu arren, aurrera egin ahal izan zuen.

Tristuraz beteriko urte baten ondoren, Debo bigarren aldiz geratu zen haurdun. Oraingoan, alabatxo bat izango zuen. Beldur handia zuen. Zorionez, aurrekoa baino erditze errazagoa izan zen amarentzat. Biok salbu atera ginen.

- Zeinen begira liraina duzun, Zeinobu.- errepikatzen zidan amak begietara so, berak ere halakoak nahi balitu bezala.

- Zergatik esaten didazu beti hori?- galdetu nion jakinminez.

- Nik lehen zuk bezalako begiak nituelako. Izarren dir-dira itzalpean uzten zutenak. Baina, halako batean, dir-dira galdu zuten.- erantzun zidan amak hanka bat bestearen gaineratik gurutzatzen zuelarik.

- Eta hori zergatik?- galdera egin orduko nabaritu nuen amaren begiak ilundu zirela.

- Lasai, maitea. Ez diot inori zure begi polit horien dir-dira lapurtzen utziko eta. Horrela, zure bi izar horiek biontzat adina dir-dira izango dute.-hori entzutean, irribarre erraldoi-erraldoia irten zitzaidan ezpainetan. Bi aldiz pentsatu gabe, amari lepotik heldu eta estu-estu besarkatu nuen bi malko lodi masailean behera irristatzen zitzaizkion bitartean.- Zure begirada garbia ez da inoiz ilunduko. Zin dagizut.

6. IHES EGIN NAHI DUEN BEGIRADA

Berandu da egindakoa zuzentzeko. Beranduegi. Lotsa ematen dit begirada lurretik altxatzeak. Ezin ditut ahaztu gela hartako mahai gainean zeuden tresnak: guraizeak, bizar-xafla, labana... Ezta gela hartatik pasa ziren neskatxen oihuak ere.

Norbait akabatu izan banu bezala sentitzen naiz. Oilo-larrua jartzen zait hainbeste sufriarazi nien haurren begiradak, negarrak eta garrasiak gogoratze hutsarekin. Azken finean, haurrak besterik ez baitziren. Haur xaloak.

Duela urte batzuk, lehengusinarekin hasi nintzen neskatilei klitoria erauzten. Gure erlijioaren zati zela uste nuen. Gainera, auzokoek, beraiek eskatzen ziguten hori egin genezan. Guk ez genekien ezer askorik.

Umetatik erlijioa izan genuen izpide eta ez ginen alfabetatuak ere izan. Aitzakia bat eman lezake. Agian, horrela izango da. Nire burua zuritu beharra dut. Hala ere, ez naiz sekula begirada lurretik altxatzeko gai izango. Amesgaizto honek ez nau hil arte bakean utziko. Merezia dut. Bai, merezia dut egindako kaltea hain handia izanagatik.

Urtebetez aritu ginen ahizpa eta biok egunean ume bat edo bi bizitzan ezagutuko zuten sufrimendurik latzenetik pasarazten. Damu naiz. Ez naiz inoiz begirada lurretik altxatzeko gai izango.

Egiten genuenaren ondorioak entzuten ditudan bakoitzean, ihes egin nahi du nire begiradak. Ez daki non ezkutatu. Damu da. Damu naiz. Ez dut inoiz begirada lurretik altxatu ahal izango.

7. BEGIRADA MINGARRI ASKO SAIHES DAITEZKE

Medikuntza ikasi izan arren, oso gutxi entzun nuen ablazioen inguruan Mauritaniara iritsi nintzen arte. Bertan, Afrika osoan oso zabaldua dagoen ohitura anker baten berri izan nuen: ablazioak.

Horien berri eman zidan lehenetarikoa Debo izan zen, gonak janzten ausartzen ez zen emakume gazte bat, bere bihotzak zahartzaroaren azken zatian zirudiela eman arren.

Bere istorioaren jakitun, hemen emakumeen hiru laurdenek antzeko istorioa dutela deskubritu nuen. Guztiz harritu ninduen emakume hauen adoreak. Adorea behar baita horrelako mina jasan ahal izateko. Adore izugarria.

2005. urteaz geroztik, debekatuta dago Mauritanian usantza hau egitea. Hala ere, oso barneratuta dagoen ohitura bat izanik, zaila egiten zaie egoera berdinetik pasa direnei ere, besteei ondorioez ohartaraztea.

Zailtasunak zailtasun, ohitura hau errotik kendu behar dela ziurta daiteke. Bizitza asko arriskuan daude, jadanik izandako biktimez gain. Dagoeneko, Deborena bezalako begiradak ez dira lehengo berak izango. Baina, begirada mingarri asko saihas daitezke.

Eztizen Agirresarobe Pineda
DBHO 1